59. zk.

1997KO AZAROA

GEU ELKARTEAREN BABESAREKIN

FRANKEO ITUNDUA 48 / 27

# gasteiz

gasteizko euskaldunon aldizkaria



## mil a gritos

S.A.ren itzalpean gauzaturiko nazioarteko mirari musikala



## BOCCIA

KIROLA, bizitzeko arrazoi bihurtzen denean



## Sergio Scariolo

Azken Casanova Zurbaon

DEIALDIAK, ELKARRIZKETAK, KRITIKAK, ERREPORTAIAK... 13 ORRIALDE KULTURAREN INGURUAN

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

ZEUEK IDAZLE

## GOIENAK 50. URTE

*1947. urtea zen. Gudaoste zail hartan gazteriak aisialdi gogoak asetzeko zerbaiten bila hasi zen. Mendiak garaiko gazteei bere deia luzatu zien, eta edozein elkarkidetza ezinikusi zuen Erregimenaren gainetik, Goiena Mendi Taldea sortu zen, garaiko Ekintza Katolikoaren barne. 50 urte igaro eta gero, gaurregungo Goienak atzera begiradatxo bat bota nahi izan du, bere historia propioaren balantze bat eginez.*

*Goiena Mendi Taldearen historia, zailtasun asko medio eraiki izan dugu, 50. hamarkadan aritzen ziren txangozale haien oroitzapenen zatitxoak lapurtuz, eta hainbat eta hainbat artxibategietan miatuz, Jose A. Gil-Garciak eginiko oso merituzko lan ederrean. Goiena, egun, euskal ingurugiroan aritzen den mendi taldeen artean aktiboenetarikoa da. Mendi martxak, trabesiazko eskia, eskalada, mendi bizikleta, Julio Garciak eginiko iraupenezko martxa... Horrez gain, 1997. urte honetan betetzen ditugun 50 urteak ospatzeko, bazkide talde batek Urteurrenako egutegi berezia prestatu izan dugu.*

*'Goiena, atzo eta gaur' zelako erakusketak hainbat materiale ezberdin jaso zituen, irailaren 19tik urriaren 12ra bitartean. Ekitaldi honetan azpimarragarriena ez da bertatik igaro diren 1.600 lagunak, baizik eta arratsalde euritsu batean bisitatu ohi diren erakusketa hoiek baino zertxo bait gehiago izan zela. Izan ere, jendeak bertara joan eta patsadaz gozatu du gure erakusketaz.*

*Aste Kulturala, ezinhobe hasi zen: irudietan. Pedro Ezquerrak eta Manuel Condek eginiko muntaiarekin eta Patricia Azanzak pianoarekin jarririko notez, 'Mendiaren izpiritua' daztatu ahal izan genuen, hau da, mendira hurbiltzerakoan mendizaleak dituen aukera guztiak: jendea, zuhaitzak, errekak, animaliak...*

*Ikusentzunezko gehiago izan ziren. Urriaren 1ean 'Andeak' izenekoa, Saul Cereceda eta Marcos Matuteren esku. Urriaren 2an, Patxi Sanchez-Dehesak Julio Garciaren Omenekoaren boskarren aldiaren diaporama ederra eskeini zigun. Eta astea ixteko, Pamir mendilerroan kokatzen den Lenin mendiaren inguruko ikusentzunezkoa eskeini zigun Javier Delgado mendigoizaleak.*

*Baina ezin errepikatuko dena irailaren 30ean gertatu zen, Goienako hiru belaunaldi mahai batean eseri bait genituen. Hizlariek, 50 urteren buruan mendi bera bizitzeko era ezberdin guztien berri izateko aukera paregabea eskeini ziguten.*

*Lerrook amaitzeko, hainbati eskerronak ematea egokia iruditzen zait, beren laguntza gabe, diruzkoa eta baita morala ere, ezer gutxi egin baikenezake: Vital Kutxa Fundazioa, A.F.A.ko Kultura Saila, Udaleko Kultura eta Kirol Saila eta Euskal Herriko eta Arabako Mendi Federazioak. Baina denen gainetik, ekitaldi guzti hauek burutzea posible egin duten bazkideak zoriondu nahi nituzke, eta ez bakarrik hauek, egun, maitasunez, ilusioz eta lan egiteko gogoaz, Goiena Mendi Taldeko ekintzetan parte hartzen duten guztiak ere. Guzti guztioi, zorionik beroenak 50 urte hauengatik.*

**Maria Jose Monge, 'Goiena Mendi Taldea'ren 50. urteurrenako koordinatzailea da**

GEU IDAZLE

## EUSKALTEGIA ETA GERO...

*Aspalditik daramagu "geu idazle" izeneko zutabe honekin, non gu geu nahi dugun gaiaren inguruan mintzatzen garen. Oraingoan niri heldu zait ordua eta, buruan gai asko banituen ere, azkenean antzinatik daukadan kezka batez idaztea erabaki dut. Ez naiz, badakit, oso originala izango baina, euskara izango baita nik hautaturiko gaia.*

*Hain zuzen aspalditik daukadan kezka azaldu nahi dizuet, eta ez zait erraza izango hamar lerrootan azaltzea. Dena den ideia hori galdera batekin laburtuko dizuet: Zer gertatzen zaio jende askori euskaltegia utzi eta gero?*

*Kasu askotan euskaraz egiteko aukera ez dutela, eta hori arrazoi anitzengatik izan ohi da. Inork ez du esango gure hirian erraza denik euskaraz bizitzea (behintzat hori da nik ikusten dudana), baina badaude, bai, makina bat aukera ezberdin. Nire kasuan, esaterako, euskaldun berri naizenez hori nabariagoa ikusi dut. Askotan mugitzen garen guneetan gaztelania da nagusi, eta hori, azken finean oztopo handia dugu.*

*Euskaltegian gabiltzan bitartean euskarazko harremanak ditugu, baina gero zer? Jende askori gertatzen zaio, euskaltegian bukatu eta gero, jenderik ez izatea euskaraz aritzeko. Agian beste ikastaroren bat antolatu beharko da, euskaltegietatik kanpo, beste nolabaiteko ekintza batzuk, euskara hiri osora hedatzeko, betiko txokoetan gera ez dadin.*

*Ondorioak, nire iritziz bistan daude. Badirudi gune konkretu batzuetatik ibili behar zarela euskaraz mintzatzeko, esan Kutxi kalea, esan euskaltegiak... Ez dakit noren errua/ardura den, baina gai honetan hutsune handia dagoelaren ustetan nago, pausu bat falta zaigula ikasten duguna gero praktikan jartzeko. Ez genuke euskara 'ghetto' batean bihurtu behar, eta hori da, benetan, batzuetan iruditzen zaidana. Badirudi euskalduna izateko bide batzuk jarraitu behar dituzula (leku batzuetatik ibili, halako janzkera eraman, joera jakin bat izan... etabar). Eta guzti horrek azken finean, euskara baztertzen du. Gure hizkuntzak guzti hori baino askoz ere zabalagoa izan behar du eta, auzoetara, dendetara, hiriko erdigunera... leku guztietara hedatu.*

**David Alvez**


Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

---ZURRUMURRUAK HITZ ETA PITZ------

# 15 URTE BERTSOTAN




**1982. URTEA.** *Urria. Abornikanoko Errota Baserrian eta ustekabean, Gasteiztik zetorren gazte talde beten bisita.*

*- Kaixo! zu al zara Abel Enbeita?*

*- Halaxe da.*

*- Zeure bila gatoz. Bertso eskola bati hasera eta abiada eman nahi genioke Gasteizen eta horretarako bertsolari baten eskuharmena ezinbestekotzat dugu.*

*Egia esan aspaldiko nere ametsetariko bat zen hura eta, nola ez, baiezkoa eman nien, bitan pentsatu gabe.*

*'Lantzale' dantza taldearen egoitzan egin genuen lehen bilera. Ez naiz zihur, baina dozenatik gora elkartu ginela uste dut.*

*Hasi eta gero eta jende gehiago hurbiltzen zitzaigunez, Lantzale utzi eta 'Txusta' taberna ezarri genuen egoitza berria, baita hau denbora gutxira betetzen hasi ere. Animoak pilpilean zeudenez 84ko udaberrian, Arabako I. Bertsolari Txapelketa antolatu genuen. Hamasei bertsolarik hartu zuten parte, eta Amurrion eta Aramaion finalerdiak gainditu ondoren, Gasteizko Florida Antzokian helmugaratu zen ekintza berezi eta bitxi hura.*

*Geroztik, eta urtero hainbat eta hainbat ekintza mota burutu izan ditugu, Arabako eskualde guztiak kontuan izanik. Hala nola, bertso saioak, erakusketak, Bertso Asteak (hitzaldiak, kantaldiak...), bertsolari gazteen topaketak... Eta nola ez, aurten, egun Prudentzio Deuna-Estibalitzko Ama Bertso Saria izena hartu badu ere, zortzigarren txapela jarriko dugu jokoan, Arabako Bertsolari Txapelketan, alegia..*

*Hamabost urte hauetan, ehundaka lagun izan dira Gasteizko Bertsolari Eskolako kide, bertsotan ikasi nahian, noski, baina batez ere hori aitzakitzat hartuz, euskara landu eta euskal giro umoretsu batean murgildu nahian. Haserako batzuok jarraitzen dugun arren, gazteen erreleboa dator eta beraiena da Eskola honen geroa. Merezi du.*

**Abel Enbeita**

# EUSKA-OLA

**HORTAZ ARI** *ote zen F. Krutwig, garai batean 'Sarrail de Ihartza' ezizenez ezagutu genuena, euskara batuak espainoltzen gaituela zioenean? Edo, bestela esanda, zertaz ari gara gaur egun euskara batua aipatzen dugunean?*

*"Bakoitzari berea" baldin bada legea, euskara batuari ere bereak eman beharko dizkiogu, noski. Eta bereak ditu euskara batuak, nola gauza txarrak hala onak ere. Txarrak plazaratu direneko honetan, nik onak erakuste aldera joko dut, botila erdi beterik -ez erdi hutsik, alegia- ikustea onuragarriago zaigulakoan.*

*Mundu zabaleko hizkuntzen historiari begiratu bat eman besterik ez dago ikusteko nola bizirik dauden hizkuntza guztiek burutu duten bere standarizazio-prozesua. Eta nola halako prozesurik burutu ez duten hizkuntzak, aldiz, desagertuak ditugun edo desagertze bidean.*

*Nornahik daki, bestalde, hizkuntzak ez direla isolaturik bizi, batzuk besteekiko kontaktuan baizik. Eta horrek, jakina, hizkuntzen artean eraginak izatea dakar. Eragin horien kontra egiten saiatzea, garbizalekeriak maileguzko hitzen kontra egindako (egiten jarraitzen duen...?) gurutzada bezain antzua da, zeren hizkuntzak, lehenik eta behin, Krutwigek besterik pentsatu arren, komunikazio-tresna ditugu. Eta tresna diren heinean, tresna bizi eta eguneratuak behar dute izan. Hizkuntza orok izan du bere bilakaera eta horrexegatik diote gazteleraz mintzo direnek regla eta ez horren jatorrizko forma latinoa, 'recula' alegia. Horrexegatik galdu dira hizkuntza guztietan forma batzuk (nork erabiltzen ditu gaur egun ìviniereî, hiciereî, ìhubiereî eta antzeko formak?) eta beste batzuk irabazi, mailegatu edo sortu.*

*Kezka sortzen bide dio gure Federikori euskaldunok "datorke" bezalako formak galdu izanak. Ni, aldiz, "datorke" eta antzeko formak ongi menderatuko lituzkeen euskaldungo minoritario eta fosildu bat ghettotan -ez bada museotan- sartua ikusteak kezkatuko ninduke.*

**Mikel Garmendia**



ONGI ETORRI
xurrut



KUTXI 103
GASTEIZ

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!
EGUNEKO MENUA
ETA KARTA
Kutxilleria, 33 tfnoa. 25 02 39

TABERNA



Upabi
San Antonio, 39



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## 1997ko azaroa


2
**ERITZIZ BLAI**
- maria jose monge, Goiena mendi taldeaz
- david alvez, Euskaltegia etagerokoaz zeharo kezkati.

3
**ZURRUMURRUAK ETA HITZ ETA PITZ**

4
**BERTSOAK**
- aitziber perez de karkamo, bertso eskolari

5
**KALEA MINTZO**
kiroletan aritzen al gara?

8
**KULTURA**
LITERATURA
'Egunak hilak jaiotzen direnekoan'
ARTEA
Montehermoso kultur gune birtuala
MUSIKA, DANTZAK...
Kondharian, Principal Antzokian
MUSIKA
Mil a gritos, S.A.ren babespean

19
**KIROLAK**
Boccia, paralisidunentzako aukera
Sergio Scariolorekin mintzo

24
**HAURRAK (mostrongotxoak)**
Musikaz blai

26
**KOMIKIA**
Etsai Publikoa I


beren ahotan

# Aitziber Pz. de Karkamo

DOINUA: mutil koxkor bat itsu aurreko



## Zorionak, Bertso Eskola

Nahiz eta gutxik ikusi zuten
han etorkizun garbia
hamabost urte igaro dira
piztu zenetik argia.
Traba, oztopo denen gainetik
gogoa zen gidaria
kantu kantari hemendik hara
zabalduz garai berria
lehen Vitoria izandakoa
gaur Gasteiz bertsolaria

Bertso eskolak jasoko ditu
aurten hamabost kandela
ezin ukatu hautsi duela
jadanik marka itzela.
Zaleen aurrean harrotasunez
kendu du bere txapela
ta esan digu ahots indartsuz
ondo dakien bezela
Txustatik irtendako doinua
urrun iritsiko dela.


**ZUZENDARIA:** JOSU KINTAS
**ERREDAKZIOBURUA:**
ASIER PZ. DE KARKAMO.
**ERREDAKZIO-BATZORDEA:**
LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI, ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL, DAVID ALVEZ, EDU LOPEZ DE LUZURIAGA.
**MAKETAZIOA:**
ALEX BADILLO
**KOMIKIA ETA MARRAZKIAK:**
IÑIGO SARASOLA , AITZIBER IRIONDO
**PUBLIZITATEA:**
KARLOS FDEZ. DE BETOÑO
**ARGAZKILARIAK:**
EDORTA SANZ, JOSEBA UNZALU.
**KOLABORATZAILEAK:**
TXIPI ORMAETXEA, JUAN JOSE KASTRESANA, IÑAKI GAUNA, TXABI ARNAL GIL
**INPRIMATEGIA:**
GERTU KOOP. E. (ZUBILLAGA, OÑATI)




12-13
KULTURA
MONTEHERMOSO KULTUR GUNEAREN INGURUKO ARGAZKI ERREPORTAIA


JUSTICIA

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak diruz lagunduriko aldizkaria

GEU GASTEIZ EUSKALDUNA
GEU Elkartearen babesarekin
Lege-Gordailua VI-582/92
ISSN: 1133-0988



Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria


gasteizko euskaldunon aldizkaria

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# 'herri' Kirolak

**_Sasoi bete-betean egoteko, kirola egitea garrantzitsua dela ukaezina da; giharretako tentsioak desblokeatzeko gomendagarria izateaz gain, pisua mantentzeko eta gaixotasun batzuk ekiditzeko neurri paregabea omen da. Ugaria da kiroletan aritzen den jendea, baina asko dira ere, etxeko besaulkian patxadaz eserita, telebistako kirol-emanaldien jarraitzaile sutsuak direnak edota beraien kirolzaletasun guztia As edo Marca irakurriaz asetzen dutenak._**

**1.- KIROLETAN ARITZEN AL ZARA? ZERGATIK?**
**2.- ZER DERITZOZU GOI-MAILAKO EDO LIMITEKO KIROLEI BURUZ?**



xabier aranburu
EUSKARA IRAKASLEA

*1.- Bai, noski. Hockey-an jokatzen dut. Astean hiru aldiz edo, aritzen naiz.*

*2.- Goi mailako kiroletan denetarik dago. Oiarzabalek, esaterako, aurki egin duena txapela kentzekoa da.*



mirenjo garcia
TABERNARIA

*1.- Ez dut kirolik praktikatzen. Etzanda egotea askoz hobe da.*

*2.- Goi mailako kirolariek egiten dutenari ondo deritzot. Haien gustokoa da eta errespetatu behar da.*



enrike torres
LANGILEA

*1.- Ez, ez dut inoiz egiten. Nahikoa kirol gogorra da egunero lantegira joatea.*

*2.- Nire familian mendigoizale bat dago eta etxetik ateratzen den bakoitzean kezkaturik geratzen gara. Halere, ondo deritzot.*



elvira andres
AUXILIARRA

*1.- Yoga egiten dut. Ezin dugu kirola deitu, baina nire ustez gorputzarentzat gauzarik osasungarriena da.*

*2.- Batzuk kirol arriskutsuak diren arren, horixe da beren helburua eta hala ulertu behar da.*



andres sanchez
LANGILEA

*1.- Ez naiz aritzen, ez kanpoko kiroletan ezta gimnasioetan ere.*

*2.- Goi mailako kirola egiteko gai dena, egin dezala. Horretarako gai ez badira, baina, arazo handiak sor ditzazkete.*



arantza pz. de albeniz
IKASLEA

*1.- Noizbehinka igerilekura joaten naiz, baina nahiko alferra naiz eta jarraian ez naiz kiroletan jarduten.*

*2.- Arriskua eduki arren ondo deritzot, gorputzak hala eskatzen badie.*


## ZURE BETAURREKOAK 30 MINUTUTAN



ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

EXPRESS ZERBITZUA

MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS
Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Zuri gero eta zerbitzu hobea ematen ahalegintzen garela eta, teknologia aurreratuenari esker, zure betaurreko graduatuak 30 minututan* eskeintzen dizkizugu. Eta zerbitzu optikoetan 1 aren garantiarekin, jakina.

(*) enkargu lenteak izan ezik


Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



**AURTENGO NAZIOARTEKO ANTZERKI JAIALDIAREN ALDIAK BOST ANTZESLAN BESTERIK EZ DITU EUSKARAZ ESKEINIKO**

# Antzerkia, euskaraz!!

**IRAILAREN 24EAN ekin zitzaion aurtengo Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren aldiari, XXII.a dagoeneko. Lehenengo unetik iazkoarekin alderatuz ezer gutxi berrirekin zetorkigulaz ohartu ginen: Lau hilabeteren buruan eta bi gune ezberdinetan (Principal Antzokia eta Beñat Etxepare Antzokia) burutuko zen, eta bost, bakarrik bost, izango ziren euskarazko antzezkizunak.**



*La Cubana* talde kataluniarraren sei emanaldik igo dute aurtengo Nazioarteko Antzerki Jaialdiko oihala

JADANIK ANTZEZLAN bat joan zaigu. Euskaraz ikus daitezkeenei buruz ari gara, noski. Lau geratzen dira, beraz. Hoietatik bi euskaraz eta gazteleraz emango dira, eta beste biak euskara hutsez soilik. Hainbeste zenbakirekin aditzera eman nahi genuena zera da: Hiru hilabeteren buruan, euskarazko bi lan soilik ikusteko aukera eskeintzen duela Jaialdiak.

Datozenei ekin aurretik, dagoeneko antzeztua izan den obraren berri emango dizuegu. Urriaren 15ean Antonio Skarmeta txiletarren 'Nerudaren Postaria' ikusteko aukera izan genuen. *Maskarada*ren lan berri honek jatorrizko narrazioak ematen duen marko historiko eta dokumentala edo pertsonaien teatralitate eta aberastasuna eskeini zigun, ez ordea, pentsa zitekeenaren kontra, izenburu bereko filman landutako aurpegia.

## AZAROAN, ZER?

Azaroaren 26an *Tanttaka Teatroa*k "Shakespeare Osoa" (gutxi gorabehera) deituriko lana aurkeztuko du - Adam Long, Daniel Singer eta Jess Winfieldenena autore britaniarrena-. Berriz ere, ohi dutenez, umorezko antzezlana dakarkigute *Tanttaka Teatroa*koek Gasteizko Jaialdi honetara (gogoratu iazko aldian 'El Florido Pensil' aurkeztu zutela).



"Shakespeare osoa" (gutxi gorabehera), Stratfordeko maixuaren bizitzaren ikuspegi berezi xamarra da, umoretsua oso. Azaroaren 26an, *Tanttaka Teatroa*ren eskutik.



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

'Shakespeare osoa'k, ordu t´erdian zehar William Shakespeare-ren antologia berezia laburtuko digu, Ingalaterrako egile ospetsu honen ia obra guztiari begirada eginez. Aktore lanetan, Joseba Apaolaza, Asier Horamaz edo Niko Lizeaga aritu dira, besteak beste, guztiak Patxi Barkoren agindupean. Farre egiteko lana, *Tanttaka*-ren ohiko estiloan.

*Bederen 1*ekoak, bere aldetik, 26an etorriko dira 'Udaberriko lore guztiak' antzeslana aurkeztera. Lau dira lan honetako protagonistak, denak amodiozko harremanek elkartuak. Haien beraien esanetan, lan honen oinarria "jendea antzerkira hurbiltzea da". Oso gomendarria da, gure ustez, 'Udaberriko lore guztiak', komedia atsegina eta dibertigarria dena, publiko denentzako, eta tartean ere musika ikuskizuna eskeintzen diguna. Patxi Bilbao datorkigu zuzendari lanetan eta Maite Aguirre, Jon Ezkurdia, Pili Guerra eta Patxi Santamaria, aktore gisa.

### UMEENTZAKO AUKERA

Ume eta gazteeentzako esparruan abenduaren 14an Michael Ende-ren "Lenaren Sekretua" ikusteko aukera izango dugu. *Sambhu Antzerkia*k aurkeztutako lan honek guraso eta haurren arteko harremanak aztertzen ditu. Haurrek beren gurasoei "ezetz" esaten dieteneko egoera hartzen du, lan honek, abiapuntu gisa; bitxi samarra, beraz. Esan beharrik ez dago fantasia eta errealitatea nahasten dituela *Sambhu*k 'Lenaren Sekretua' lanean, Michael Ende-ren liburu ia guztietan bezalaxe. Alex Ruiz Pastorrek zuzenduko du Azucena Zabaleta, Juan A. San Jose eta Caro! Verano-ren lana.

Eta Jaialdari bukaera emango dion lanarekin amaitzen dugu guk ere. Abenduaren 17an *HIKA Antzerkia*k 'Hau Komeria!' aurkeztuko du Beñat Etxepare Antzokian. Hitz gutxitan, antzerkira gutxi joaten den jendea, antzerkiaz asko dakien jendea, edota antzerki batera inoiz joan ez den jendearentzako komedia musikala da 'Hau Komeria!'. Bere egilea Agurtzane Intxaurraga da, eta aktoreak Miren Gojenola, Mikel Laskurain, Josu L. Soraluze eta Agurtzane Intxaurraga bera.

**David Alvez**



Haurren eta gurasoen harremanak aztertzen ditu 'Lenaren Sekretua', *Sambhu Teatroak* hurbilduko digun obra atsegina

#### azaroa

**1. gunea**
**Principal Antzokia**

7 eta 8 — 20,30etan eta 23,00etan
'La Kabra tira al monte'
*Karra Elejalde*

15 — 20,30etan
'Suge zuriaren kondaira'
Sichuan-go *Chuanju Opera*

18 eta 19 — 20,30etan
'Frankenstein'
*Ananda Dansa* konpainia

21 — 20,30etan
'¿Qué fue de las hermanas Sue?'
*Las Veneno*

26 — 20,30etan
'Shakespeare osoa'(g.g.)
*Tanttaka Teatroa*

28 — 20,30etan
'Udaberriko lore guztiak'
*Bederen 1*

**Haur eta gazteen gunea**
**Principal Antzokia**

9 — 18,00etan
'Jugando con 'Pa Cuenca'
*Contratiempo*

16 — 18,00etan
'Las tres cerditas y el lobo'
*Teatro Carrusel*

23 — 18,00etan
'Supertrot'
*Quiquilimon*

30 — 18,00etan
'Kikiricaja'
*Teatro Paraiso*

**2. gunea**
**Principal Antzokia**

13 — 20,30etan
'Medea'
*El Globo*

20 — 20,30etan
'Zapping'
*Imprebis*

27 — 20,30etan
'La leyenda del Santo bebedor'
*Fuegos Fatuos*


IZARRA TABERNA JATETXEA
BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73






bar • restaurante • albéniz
Portal del Rey 9
GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
01002
28 28 39
Gasteiz

jo eta ke
TXAPELARRI TABERNA
KUTXI kalean




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## TXABI ARNAL GIL

### 'Donde los días nacen muertos' liburuaren koautorea

# "INTSUMITUEN BORROKA GUZTIZ LEGEZKOA DA, NAHIZ ETA LEGEZ KANPO EGON"

**Intsumituen aldarrikapena eta espetxeratzeen salaketa Arnal Gil anaiek idatzitako 'Donde los días nacen muertos' liburuan jorratu dituzten gaiak dira. Manuk, anai txikienak, gartzelan bizi izandako experientziez osatu dute liburua bion artean.**

Txabi, bere aldetik, GEU GASTEIZko kolaboratzaile, haur-eskola bateko irakasle, Udalak argitaratutako "Gárgolas" liburuaren koautore eta Udalak ere antolatutako ipuin lehiaketetan bi aldiz saritu izandakoa dugu. Liburu honek duen freskotasunaz eta arintasunaz hurrengo argitarapenetan gozatzea espero dugu ere, Txabiren beraren esanetan, ideiak ez baitzaizkio falta.



**Nola bururatu zitzaizuen holako liburua idaztea?**

Nire anaiak bi urte eman ditu, gutxi gorabehera, Basauriko gartzelan intsumitu zelako. Asteburuoro, herrian (Ermuan) elkar topo egiten genuenean, berak hango gertakizunak, eta hango pertsonaien bitxikeriak kondatzen zizkidan. Istorio eta pertsonai horiek interesgarriak iruditu zitzaizkidan eta idatz zitzala eskatu nion anaiari. Bera ez zen oso prest agertzen hasera batean, baina kondakizun haietako batekin nik prestaturiko testu bat irakurri zuenean animatu egin zen.

**Zer adierazi nahi izan duzue liburuarekin?**

Intsumituek jasan beharreko egoera eta beronen gartzeleratzea salatuz gain, espetxe barruko egoera bera nahi genuen salatu ere. Liburua irakurrita, jendeak pertsonai batzuk maiteko ditu eta beste batzuk, bortzatzaileak esaterako, gorrotatu.

**Intsumisio gaia liburua idazteko aitzakia dela dirudi, beraz.**

Bai hala da. Intsumisioa aldarrikatu nahi dugula egia da, baina liburua ez da intsumitu baten diarioa, intsumitu horrek gartzela bizitza ikusten duen era baizik.

**Liburuko zein pertsonaia duzu gustokoen?**

Jendeak gustoko duen pertsonaia Fred da, bere portaeragatik, bere pentsamenduagatik. Lapurra da Fred, banketxe bat lapurtu eta gero Andaluzian atxilotu zutena. Espetxeko filosofoa dela esan daiteke. Urte askotxo eman ditu bertan eta giroa inork baino hobeto ezagutzen du. Nik, aldiz, 'El Mudo' nahiago dut. Ez pertsonaiak eskaintzen duenagatik, bere karakterizazioa hoberen egin genuena dela uste dudalako baizik. Pertsonairik borobilena dela esango nuke.

**Nor da 'El Mudo'?**

'El Mudo' tutik esaten ez duen, ahoa zabaltzen ez duen pertsonaia da. Manuk kondatukoaren arabera, berarekin batera eman zituen hilabete guztietan ez zuen hitz bakarra ere esan. Irratia entzuten eta erretzen eman ohi zuen espetxeko bizitza osoa.

**Nola hartu du Basauriko espetxeko jendeak liburuaren argitarapena?**

Manurekin zeldan egon zirenek bazekiten liburuak kalea ezagutuko zuela. Horrez gain, berak barruan emandako hainbat hiletan zehar atal batzuk idatzi genituenez, ezagutzen dute jada. Ondo, oso ondo hartu dute.

**Eta kritika... zer moduz portatu da zuekin?**

Orain arte lagunen kritikak entzun ditugu, baina lagunek esaten dutenarekin ezin zara fidatu. Bi irratitik deitu izan digute, liburua gustatu zaiela esanez.

**Zer deritzozu egungo intsumisio mugimendua?**

Intsumisioa oso mugimendu sanoa da; borroka guztiz legezkoa da, legez kanpo dagoen arren. Intsumisioaren eta intsumituen kontra egiten



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




den guztia gaizki dago. Euskal Herri honetan behin eta berriz aldarrikatzen da "bakea" hitza, Estatuak baketsuak gartzelaratzen dituen bitartean. Nola ulertzen da hori? Nik behintzat ezin dut ulertu. Jendearen kontzientzia ezin da gartzelatu, ezin da zigortu.

**Liburua argitara emateko arazorik izan al duzue?**

Estatuko argitaletxe handiek gai hori beren katalogotik kanpo dutela erantzuten dizute. Liburuarekin batera, intsumisioa aldarrikatzen zuen gutun bat bidaltzen genien, liburuaren gaia azalduz. Liburua zabaldu gabe itzultzen ziguten.

Hondarribiako 'Iru' argitaletxeak deitu zigun orduan liburua argitaratu nahiean, baina argitaletxe txikia izanik, laguntza beharko zutela adierazi ziguten. Ermuko (Arnal anaien herria) Antimilitarista Taldea gurekin *enrollatu* eta 300 ale erosteko prest ageri zen. Jada kopuru hori ziurtatua izanik, argitaletxeak arriskatu zezakeela erabaki zuen.

**Nori zuzendatuta dago liburua?**

Edonori, edonork irakur dezake liburua. Literatura gustoko baduzu... Gu saiatu gara maila literario on bat lortzen eta nik uste alde horretatik zerbait lortu dugula. Liburua irakurterraza da, oso arina. Erabili izan dugun hizkera kaleko hizkera da, baina nahiko zaindua.

**Zer nolako erantzuna jaso du kalean?**

Argitaletxea pozik dagoela badakit, baina Durangoko Azoka igarota jakingo dugu benetan salmenta maila. Argitaletxe txikia denez, zabalkunde kanpaina oso mantso egiten ari gara. Promoziorako ez dago dirurik. Hala ere 'Zabaltzen' banatzaileak Euskal herriko hainbat liburu dendatan kokatu du liburua. Nik Gasteizen ikusi dut.

**Zaila izan behar da liburu bat bi pertsonen artean idaztea.**

Erraza ez da, baina gure ustez ez da hain zaila izan. Liburuan istorioak gehi daitezke. Ez duzu dena jarraian irakurri behar. Istorio bakoitzak pertsonai ezberdina aurkezten du, liburua edozein ataletik zabal dezakezu eta hortik irakurtzen hasi. Anaiak zerbait idatzi eta niri kondatu ondoren nik idazten nuen ere. Gero, elkartzen ginenean, amankomunidadea egin eta estiloa bateratzen genuen..

**Hurrengo proiektuak elkarrekin eramango al dituzue aurrerantz?**

Nik nire ideiak baditut eta berarekin oso gustora aritu naiz, baina baliteke berak bere aldetik aritu nahi izatea. Badakit berak bere ideiak ere badituela. Liburua ondo saltzen bada, gainera, beste bigarren liburuarekin argitaletxeetara jotzeko aukera handiagoak izango ditugu.

Raul Saez de Buruaga

# IPUIN ETA KONTAKIZUN LABURREN IV. LEHIAKETA

ANTOLATZAILEA: **Gasteizko Udaleko Gazteria Zerbitzua**

LAGUNTZAILEA: **Geu Gasteiz aldizkaria**

AYUNTAMIENTO DE VITORIA GASTEIZ KO UDALA

**14 eta 25 urte bitartekoentzat**

GAIA: "ZURI ZERA ESATEA GUSTATUKO LITZAIDAKE..."

Berehalakotasunak eta premiak eguneroko joanetorria mugatzen duten gizarte batean bizi gara, gogoetarako, harremanetarako eta solasaldirako betarik, azken finean komunikatzeko aukerarik, uzten ez dutelarik. Gazteek beren proposamenak, kritikak, iradokizunak adierazi dezaten... pertsonai publikoen aurrean - politiko, artegizon, kirolari - egoteko parada izanez gero, zer egingo... familiako ingurunean, horretarako aukera egokiak egonez gero, konpartitu nahiko lituzketen burutazioak... sentimenduak, esperientziak, adore egoerak, ametsak... lagunartean botatzen ez direnak, beronekin superfizialtasuna nagusi delako eta bestelakoak norberak barnean betirako gordetzen dituelako... guzti horregatik eta horretarako, Gasteizko Udaleko Gazteria Zerbitzuak Ipuin eta Kontakizun Laburren IV. Leihaketarako deia luzatzen dizue.

PARTEHARTZAILEAK

Gasteizko Udalerrian zentsatuak dauden 14 eta 25 urte bitarteko neska-mutil denek har dezakete parte.

KONDAKIZUNEK BETEBEHARREKOAK

**Aurten, Geu Gasteiz aldizkariaren kolaborazioari esker**, bi modalidade ezartzea lortu da, gaztelerazkoa eta **euskarazkoa**, alegia. Bakoitza beste bitan banatuko da: 14 eta 18 urte bitartekoentzakoa eta 19tik 25 urteraino dutenentzakoa.

Lanek sei folioko, gehienez, eta biko, gutxienez, luzera izango dute. Bi hutsunetara idatziak izango dira, orrialde bakarrean, idazmakinaz.

Originalak izan beharko dira. Beste lehiaketetan saritu edota aurkezturikoak baztertuko dira, beraz.

Lanak, firma gabe aurkeztuko dira, hiru kopia eginez, eta berton izenburua edota leloa azalduko da. Lanen kopiekin batera, baina aparte, gutunazal itxi batean, egilearen datuak agertuko dira, izena, N.A.N.aren fotokopia, adina, helbidea eta telefonoa.

Aurkezturiko lanak fikziozkoak izango dira. Ez dira, beraz, entsaio edota erredakzioak onartuko.

LANAK ENTREGATZEKO EPEA

Lanak sobre batean aurkeztuko dira, Aihotz Plazako Villa Suso Jauregian kokatzen den, Udaleko Gazteria Zerbitzuan, azaroaren 29ko, larunbateko, eguerdiko ordubiak baino lehen. Lanak goizeko 9ak eta eguerdiko 14ak artean jasoko dira soilik.

SARIAK

| 14 ETA 18 URTE BITARTEKOENTZAT | 19 ETA 25 URTE BITARTEKOENTZAT |
|---|---|
| **1. Saria: 70.000 pezeta** | **1. Saria: 70.000 pezeta** |
| **2. Saria: 35.000 pezeta** | **2. Saria: 35.000 pezeta** |
| **3. Saria: 20.000 pezeta** | **3. Saria: 20.000 pezeta** |

**informazio gehiago jasotzeko gerturatu Udaleko Gazteria Zerbitzuko egoitzara, Villa Suso Jauregian, edo dei ezazu hona, Geu Gasteiz aldizkarira**



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Euskararen TXOKOA

**Salatu ditzagun euskarari eginiko erasoak, txalotu dezagun euskararen aldeko lana.**
**Argazkiak, salaketak, edota beste edozein informazio mota eskertuko dizkizuegu**

**Geu Gasteiz aldizkaria**
**Pedro Asua, 2 - 3.a**
**FAXA: 22 21 53**




## 'Mendialdea Arabako'!

Arabako Biltzar Nagusietan euskararen inguruko zerbait eztabaidatzen hasiak direla eta, inkonszientearen eraginez edo, alderdien gehiengoak adostutako paperari inolako jaramonik egingo ez diotelakoan nago. Ez dakit zergatik baina, Biltzar Nagusietako armarria ikusita, duela bi mila urte gizon batek esan omen zuena datorkit burura: - beren emaitzengatik ezagutuko dituzue -.

I.K.




## 'Sarrerak Argotuta'!

'Guridi' Zinemetan ikus daitezkeen informazioetan hainbat eta hainbat akats agertzen dira (euskarazkoetan soilik, nola ez?). Bertoko kudeatzale den J. Etxagibelek horiek zuzentzeko asmoa zuela idatzi zidan, aurtengo udaberrian! Zuzendu ez ezik, jarri berri dituzten iragarkiak euskara traketsean egin dituzte. Argazkikoaz aparte, badira beste batzuk. Hoien artean, 'Entrada Salas 1 2 3 4 Aretotako Sarrera' dioen bat. Hona hemen Euskaltzaindiaren gomendioa:

> **"...1,2,3 eta 4 nolabait aretoen deiturak direla, eta horrenbestez areto hauei erreferentzia egiterakoan, hitz multzoak mugatuan joan behar duela: '1, 2, 3 eta 4 aretoak', eta arrazoi bergatik, *-ko* atzizkia daramanean ere, gure kasuan bezala, mugatua behar dela. Beraz, goiko iragarki horrek honela behar zukeen: 'Entrada Salas - Aretoetako Sarrera'**
> **EUSKALTZAINDIA. ARABAKO ORDEZKARITZA."**

I.K.

**ZURE GUTUNEN, FAXEN ETA ARGAZKIEN ZAI GAUDE. GARRANTZITSUA DA, BENETAN. ESKER MILA!**

# GEUrekin MENDIRA

**AZAROAKO TXANGOA**

## ARRABA - LEKANDA

**Azaroaren 16an**

Irteera: Goizeko bederatzi t´erdietan, Prado kalean, Txapela tabernaren aurrean
Itzulera: 5ak aldera

Autobusez joango gara

Zerbait gehiago jakin nahi ezkero, dei ezazue honako telefono honetara:
14 62 96 (Iñaki)

CEGASA INTERNATIONAL
ALCALINA
MERKURIO-KADMIOAN %0a
CEGASA PILAK INDARTSUENAK ETA EKOLOGISTENAK




CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

Xabier taberna
musika ona eta giro ezinhobea
Kutxileria 23

HOBETU EZAZU ZURE BIZITZA KALITATEA
HOBEKI
ALTZARIAK ETA ATSEDENA
• koltxoiak • somierrak • kanapeak • ohe artikulatuak • latex • futton • ipar edredoiak • neurritara egindako armairuak •
Pio XII.a kalea, 7 behea
Tfnoa. 27 23 44
01004 VITORIA-GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# ZURE HARATEGIAK

*Jose Luis*
**GARMENDIA**
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



**SANTi**
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

**XABIER**
**AIZPEOLEA**
HARATEGIA



Florida Azoka 2 eta 3 ☎ 13 24 48

Abastos Azoka 2 eta 3 ☎ 26 78 97

GASTEIZ



**JOSEBA**
HARATEGIA
PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ **25 66 89**
GASTEIZ

**gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak**




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Montehermoso Kultur Gunea

ARGAZKI ERREPORTAIA: Edorta Sanz











• montehermosoko kultur gunea • montehermosoko kultur gunea • montehermosoko kultur gunea •

IKATZ
ARGAZKI-ETXEA

• Cruz Blanca, 11 •
• Dendaraba •
• ECOCENTRO •
(Portal de Villarreal)
• Plaza San Martín, 1 •

• VITORIA • BILBAO • EIBAR • MIRANDA • MONDRAGON •



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa









• montehermosoko kultur gunea • montehermosoko kultur gunea • montehermosoko kultur gunea •

kide



k

kide

APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa






- Juan Antonio Urbeltz zuzendaritza eta Koldo Amestoy kondatzaile lanetan
- Ehun pertsona baino gehiagoko musika, dantza eta ezustekoz beteriko ikuskizun harrigarria

- Iparralde eta Hegoaldeko sei euskal dantza talde
- Txistu, xirula eta dultzaina, orkestra baten lagungarri
- Euskal sei probintzietako dantzez osaturiko koreografia

**Azaroaren 22an arratsaldeko 8retan Principal Antzokian**

**Antolatzaileak:** Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailak
**Laguntzaileak:** Geu Elkartea eta Geu Gasteiz aldizkaria

**Gasteizko Principal Antzokiak aparteko ikuskizuna jasoko du azaroaren 22an, bertan arratsaldeko zortziretan, 'Kondhairan', dantza eta musika tradizionalez osatutako ikuskizuna, eskenatokiratuko baita. Euskarazko lan hau sineskeria eta ipuin tradizionalen kondaketa batean oinarrituta dago.**

Koldo Amestoyk kontatzen dituen zazpi ipuin osatzen dute 'Kondharian'. Horren inguruan koreografiak eta egoerak egokitu dira. Ikuskizunak herri-mitologian eta kulturan oso ezagunak diren bi pertsonai garatzen ditu: Irulea eta Itzaia. Bi pertsonai horiek ezagunak dira hainbat agerraldi tradizionaletan, batez ere ihauteriei buruzkoetan, agertu direlako. Lan honetan ikuslea bideratu egingo dute.

Kondharian ipuin eta dantza herrikoiak osatzen duten ikuskizuna da. Bertan hitza, ipuina, musika, dantza, oreka, malabare-jokoa, jantzien kolorea, mozorroak eta txontxongiloak elkartzen dira.

Ipuinen araberako soinu banda bat eratu da zuzeneko eta grabatutako musikarekin eta kontaketa eta koreografien oinarri da. Tresna tradizionalek, hala nola, txistuak, xirulak eta dultzainak sarrera ematen diote edo bat egiten dute oinarritzat jarritako akordeoi eta bibolin orkesta batekin, kontrabaxuaren, tronpeta eta perkusioaren laguntza duena. Koreografia oso zabala da, Pirineotako ihauteriak eta Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko dantzak biltzen baititu, eta baita beste erritmo batzuk ere, habanera, perikoia edo Balkaneko horoak... Proposamen ona arratsaldeko zortziretarako ez da? Sarrera 1.000 pezetakoa besterik ez da.



Txabi Arnal Gil



Arte Ederrei buruzko Sailik zabalena ezagu ezazu
behar duzun guztia aurkituko duzu
pastelak pintzelak lientzoak
oleoak ikatzkiloak olioak
akuarela kaballeteak etabar
%10a gutxiago
Arriaga euskalgintza, s.l.
500 metro karratu papergintza, informatika eta ofimatikari eskeiniak
San Anton Plaza 7 - 8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12
Biltegia: Uritiasolo 2 2. Pabilioia 23 47 00 Fax: 23 49 14

EUSKAL OKELA
LASAGABASTER
haratégia eta urdaitegia
Portal del Rey, 24
Tfnoa: 25 56 90
GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## 'KONDHARIAN' OSATZEN DUTEN IPUINOK

- Bi idi, bi lapur eta... Zazpi-izarrak
- Artzaina eta zazpi ahuntzak
- Txorien errege ttikia...
- Irulea eta Itzaiaren Ezteiak
- Hiru ehiztariak eta Hartz Handia
- Maria eta Hartzandi



- Hartza hezitzaileak.

## beste planik, bai?! azaroa

### Euskarazko ikastaroa

Azaroaren 18tik abenduaren 4ra Montehermoso Kultur Gunean 'Euskal eskola: errealitatea eta etorkizuna' ikastaroa burutuko da. Orotara 9 saio izango dira, astearte, asteazken eta ostegunetan, arratsaldeko zazpiretatik bederatzietara. Informazio gehiago jaso nahi ezkero, Udaleko Kultura Zerbitzura deitu **(16 12 60)**

### Gaur...

Udaleko Hezkuntza, Kultura eta Kirol Sailak Villa Suso jauregian antolatu ohi dituen hitzaldien artean, honako hauek dira hurrengoko egunotan entzun ahal izango ditugunak:
- azaroak 6: Bernardo Atxaga.
- azaroak 20: Elena Carballal, Greenpeace taldeko hezkuntza sailburua.
- abenduak 4: Juanjo Mena, Euskadiko Gazte Orkestrako zuzendaria.

### Bertso paper lehiaketa

Altsasuko 'Kima Taldea'k 3. Kima Bertso Paper Lehiaketarako deia luzatu du. Partehartzaileek 8tik 12ra bertso idatz beharko dituzte, gai librean, eta Altsasuko Udalera igorri azaroaren 14a baino lehen. Lehen saria: 70.000 mila pezetakoa izango da.

**Altsasuko Udaletxea**
**KIMA Lehiaketa (M. Iparragirre)**
**Gartzia Ximenez, 26**
**31800 Altsasu**

### ELKARren udazken-diskak

Elkar argitaletxeak hainbat diska kaleratuko ditu udazken honetan. Besteak beste, Jabier Muguruza, Antton Valverde, Peio eta Pantxoa eta Oskorri dira lan berrien protagonista. Hauekin batera Itoizen 'Ambulance' eta J.C. Perezen 'Bitakora Caihera' CD formatoan berrargitaratuko ditu Elkarrek.

### GEUre abesbatza

Dakizuenez, GEUre Abesbatzak martxoan ekin zion lanari, eta hortxe aritu izan da lau hilabetetan zehar. Ikasturte berriarekin jende gehiago anima daitekeelakoan, hortxe doaz bi telefono: 18 76 51 (bulego orduetan) eta 22 93 29.

### 'Ostiela'ren 7. alea kalean

'Ostiela' Euskal Kultur aldizkariak bere 7. alea kaleratu berri du. "Lehen Euskal Aldizkari Txobinista" bezala bataiatua izan denaren zazpigarren ale honek, Euskal Herri osoko kioskoak hartuko ditu 400 pezetatako salneurrian. Besteak beste, Jon Miranderen heriotzaren 25. urteurrena eta Ernesto 'Che' Guevararen 30.a ditu aztergai.

**OSTIELA**
**Euskal Kultur Aldizkaria**
**131 P.K. 20240 Ordizia**
**tfnoa.: 943 16 18 35**

Quetzal
HegoAmerikako jantzirik ederrenak
PINTORERIA kalea • S. Franciscoren kantoiaren ertzean Tfnoa: 25 03 52

JATETXEA
HIRURAK
Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47 •GASTEIZ

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK
zurbeltz
MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20




aek
Peru 8
22 60 50
-
Jose Mardones 8
26 35 40
-
Arana 30
25 24 00




EDAN • JANTEGIA
Oleaga
Karta betiko eta oraingo platerekin
Eguneroko Menua
Betiko kazuelatxoak
ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

zure euskal LIBURUDENDA
Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ
Herrikoia



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

**BI DISKA KALERATU ondoren Soziedad Alkolikaren kideek ongi baino hobeto ikasi zuten ohizko disketxeek ez zituztela inolaz ere euren betebeharrak asetzen. Overdrive-rekin, lehendabiziko lana grabatu zuteneko zigilua, harremanak apurtu zituzten estraineko esperientzia hau ez bait zuten batere baliagarria izan. Etsita, iruzurrik, Oihuka disketxerantz jo zuten, hauekin bigarren lana kaleratu zutelarik. Bigarren saio honetan S.A.-koak gustorago egon baziren ere, autogestioaren unea helduta zuten.**

## MIL A GRITOS

# S.A.-ren babespean gauzaturiko miraria



1995.EKO OTSAILAN Soziedad Alkolikakoek, Jimmyren anaiaren laguntzaz, euren diska-zigilua sortzea erabaki zuten: autonomoki aritzea, nahi zutena egitea, gura zutena, nahi zuten moduan. Mil A Gritos-en eskutik desio guzti hauek hurbildu zitzaizkien. Pedrorekin, S.A.ren kitarjole ohia eta M.A.G-en Eragintza Sailako arduraduna, honetaz izan gara mintzo.

**Zer da Mil A Gritos?**

Alde batetik diska-zigilu bat gara. Bestetik gurekin dauden taldeen materialaren saltzaileak, baita hauen kontzertu-antolatzaileak ere.

**Zer egin behar da Mil a Gritos-en parte hartzeko? Taldeak aukeratzeko erizpiderik al duzue?**

Erizpide musikalik ez dugu, ez. Moeta ezberdinetako musikak onartzen ditugu. Dena den, aintzakotzat hartzen dugu musikariak konprometituak izatea, musika maita eta ari dezatela, etorkizuna egotea. Ez dugu ahaztu behar gu inbertitzen ari garela gure proiektua aurrerantz eramateko.

**Hasieran S.A. zenuten Mil A Gritos-ekin grabatzen zuen talde bakarra.**

Bai, baina iaz beste talde batzuei zabaldu genien gurekin lan egiteko aukera. Lehenengoa Nafarroako Flitter izan zen. Ondoren Sálvate Si Puedes eta Betagarri gasteiztarrak izan ditugu gurekin.

**Eta badirudi Euskal Herriko mugak gainditu behar dituzuela.**

Bai, gure proiektuak mundu osoko musikariak onartzen ditu.

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak
Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

Plató TABERNA
☎ 22 65 64 GASTEIZ
Zaldiarian Plaza. 10



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

**Baina gertuenetik hastea erabaki dezue.**

Bai, horrela izan da. Hala ere, Azaroaren 21ean Madrilgo Orujo de Brujas eta Bilboko Anarko taldeen lanak kaleratuko ditugu, Madrildarren bigarrena, estrainekoa gurekin, eta Bilbokoen lehenengoa, hain zuzen. Abenduan Habeas Corpus-ek, Madrilgoak ere bai, guk argitaraturiko diska berria dendetan izango du, eta Urtarrilean S.A.-ren laugarrena etorriko da. Abestiak prest dituzte eta berehala ekingo diote grabaketari.

**Prestatuta dituzte abestiak? Berehala arituko dira grabazioan? Zuk ez al duzu S.A.-ren laugarren diska horretan lan egingo?**

Ez, urtearen amaieran utziko diot taldean jotzeari. Hemendik aurrera Mil a Gritos-i eta nire semeari, Aitor, eskeiniko diet denbora. Dena den, S.A.-k kitarrajole berria topatu arte lagunduko diet.

**Taldeak Mil A Gritos-engana hurbiltzen dira ala kontrakoa gertatzen da?**

Gehienetan guk geuk deitu ohi diegu taldeei, euren musika eta euren gauzak egiteko era gogoko izan ditugulako. Baina, egia esan, ez gara inoiz inoren atzetik ibili. Elkar ezagutzen genuen, eta harreman onak egoten ziren. Hori bai, esan daiteke guk lehenengo pausoa ematen dugula.

**Zuekin dauden gainontzeko taldeak S.A. bezain ongi dabiltza?**

Ez, ez hain ongi, baina talde berriak direla kontutan hartuz, esan dezakegu gaizki ez dabiltzala. Hiru mila eta lau mila diska artean izaten dute salmenta kopurua. Bestaldetik, lan berri bat aurkezten dugunean zaharrak berriz zabaltzen ditugu. Azkenean talde hauekin ez dugu ez etekinik ezta galerarik ere, eragintza eta grabazioaren gastuak ordaintzen ditugularik.

"Urteetan zehar ikasitakoak lana hobetzen lagundu digu"

geu gasteiz




"Haseran S.A.rekin egiten genuen lana baina denborarekin beste talde batzuek grabatu dute gurekin. Aurrenekoak Nafarroako Flitter izan ziren"




**Eta kontzertu antolaketari dagokionez, zer?**

Horretaz Julio arduratzen da. Hasi berria dugu arlo hau Julio orain gutxi Villarrealetik (Castelló) etorri delako. Hurrengo urterako S.A.ren jira ari gara prestatzen, beste taldeen kontzertuak ahaztu barik, jakina.

**Eta Estatutik kanpora aterako al zarete?**

Horretan gabiltza. Saiatzen ari gara Abenduaren hasieran Argentinan eta Perún S.A.-k kontzerturen bat gauzatzen, baina berde gaude oraindik arlo honetan. Ez da erraza izaten atzerrian harremanak lortzea, gehien bat zure antzerakoak bilatzen baldin bazabiltza.

**Epe labureko proiekurik?**

Urteetan zehar ikasitakoak gure lana hobeto betetzen laguntzen digu; hazten eta ikasten ari gara. Kontutan hartu behar da Gasteizen lehenengoak eta bakarrak garela. Orain gure taldeentzako kontzertuak antolatzen ari gara, bai Euskal Herrian, baita Estatu osoan ere. Jo eta bultzatu, horixe duzu geure epe gertueneko asmoa.

**Eta epe luzekorik?**

Mil A Gritos indartu, talde berriak bilatu eta zabaldu, bizi. Benetazko taldeen arteko komunikazioa lortzen ari gara, lan dibertigarria daukagu jende asko ezagutzen dugu eta. Guzti honi zentzua ematea gure ustez garaipen bat da. Zabaltzen ari gara kaleko kultura, kaleko musika, kaleko zenbait lagunen gogoa, bizitzen duguna, pentsatzen duguna.

**Zein da zuenganaino hurbildu diren taldeen Mil a Gritos-i buruzko eritzia?**

Eskerronekoak dira taldeak, pozik daude burututako lanarekin. Dena den galdera hau taldeei eurei egin behar diezu. Gu gogo osoz ari garelakoan gaude.

Txabi Arnal Gil

Tu Invernadero
zure lore sortak
ALDABE 6, BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

IRUSTA TABERNA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak
Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# musika

## berri berriak

EB Berri Txarrak izeneko taldearen lehen lana kalean dago, eta 'Hezkuntza Ustela' *single*a Euskal Herri osoko irrati formuletan.

EB Hamaika abestik osatzen dute 'El Infarto', Koma taldearen KD berria. Soinu gogorragoa eta abesti zuzenagoak diska honetakoak.

EB La Pollak zuzeneko diska grabatu du Urriaren zehar Zaragozan, Bartzelonan eta Madrilen gauzaturiko emanaldietan. Abendutik aurrera berriz eskenatokietan eta Martxoan diska salgai.

EB Hemendik At! taldeak Sonido XXI estudioetan grabatu du bere lehenengo KD-a, *D.J.* Iñaki ekoizle lanetan aritu delarik.

EB Betikoak berriro ere dendetan eta karreteran. Rolling Stones ('Bridges to Babylon') eta Bob Dylan ('Time out of Mind') euren lan berriak zuzenean defendatzeko prest ditugu.

EB Plateto Y Tú laukotearen zazpigarren lana ari gara dastatzen urriaren hasieran argitaratu zenetik. Izenburua? '7', jakina!

EB Diska bat erosi behar duzula? Andrés Calamaroren 'Alta Suciedad' itxoiten zaitu. ONGI IBILI!

## GAURKOAK ETA BETIKOAK

# PETER TOSH

### The Best of Peter Tosh

**Disky-EMI, 1996.**




*Hamar urte pasatu dira Peter Tosh hil zenetik. 1987ko Irailaren 11n, tiro batez, Jamaikako abeslari ospetsua erahilik gertatu zen arazo politikoak omen zirela eta. Musikazale garenoi reggae gizonik garrantsitsuena lapurtu ziguten.*

*Atzean gelditu ziren 60ko hamarkadaren bukaeran eta 70ekoaren hasieran The Wailers taldearekin emandako lehendabiziko pausoak, Bob Marley eta Bunny Wailer-en ondoan sortutako reggae talde mitikoa, hain zuzen.*

*Belarrietan dugu Tosh-ek konposaturiko eta milaka aldiz entzundako 'Get Up, Stand Up' abestia, 'Catch a Fire' eta 'Burning' Lp bikainak gure diskotekan, eta gogoan berak erretako kanuto eskergak. 'Legalize Marihuana!', horra hor Peter Tosh-en aldarrikapen nagusia.*

*Baina karibetar honen bizitza ez zen bukatu The Wailers taldearengatik aldendu zenean. Toshek abesti bikainez osaturiko kapitulu berria zabaldu zuen, abesti onak eta musikari hobezinak (ez dezagun ahaztu, ia beti, Sly Dumbar eta Robbie Sheakespeareren sekzio erritmiko izan zituela).*

*Hor ditugu, bada, 1976ko 'Legalize it' diskoa, bide berriak zabalduz. 1978ko 'Equal Rights', reggae musikan pauso luzea izan zena. 'Bush Doctor' eta 'Mystic Man', heldu ziren hurrengo urteetan, The Rolling Stones Records-en grabatutakoak, hain zuzen. 1981an 'Wanted Dread or Alive' ahaztua kaleraturik gertatu zen. 1983an 'Mama Africa'rekin Tosh maila altuenera itzuli zen eta 1984an zuzenean zertutako 'Captured Live'-rekin batera zuzeneko bizienetara.*

*Gu ez gara ausartu lan dotore guzti hauetatik bakarra aukeratzen, eta horregatik denen zatitxoekin osatutako 'The Best of Peter Tosh' honetara jotzea gonbidatzen zaitugu. Hemen entzungo duzue Chuck Berry-ren 'Jhonny B. Good' klasikoenaren birmoldaketa, 'Maga Dog' xarmangarria (biak 'Mama Africa' LP-tik ateratak) eta zuzeneko 'Equal Rights' mitikoa.*

*Hemen dastatuko dituzu 'No Nuclear War', militarismoaren aurkakoa, Mick Jagger-ekin batera abestutako 'Don't Look Back' alaia, eta 'Crystal Ball' reggae sendoa.*

*'The Best of Peter Tosh' honetan jamaikarraren gogoko ditugun abesti guztiak sartu ez diren arren, reggae tinkoenaren sortzailearengana hurbiltzeko aitzakia ona delakoan gaituzu. Ez galdu!*

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Korreria, 14 Mikel Deunaren Pasabidea
Tfno: 12 08 88
01001 - GASTEIZ

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta Goxotegia
Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

IPARRA
taberna
Giro ezin hobea!
Florida, 80
Tfnoa. 26 77 81 GASTEIZ



GUREA
jatetxea
Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33

EGOA LIBURUDENDA
LIBURUAK • MUSIKA • MATERIALE BIRZIKLATUA
Manuel Iradier kalea, 9-A Tnoa. 11 88 95



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# SERGIO SCARIOLO

## "Italiarrok askoz ere lasaiagoak gara"



**URRUTITIK IKUSITA ere, edonork asmatuko luke nongoa den hileko elkarrizketatua. Gasteizera heldu bezain laster, argi azaldu zigun kazetarioi nola ahozkatu behar ziren bere izen-abizenak. Langilea, profesionala, gaztea... Hemen duzue Sergio Scariolo, bera den bezalaxe, guztiekin diplomatikoa: Azken 'Casanova' Gasteizen.**

**Gizon dotorea zara eta. batzuek diotenez. 30 traje ezberdin dituzu...**

Ez hainbeste. Udako trajeak... negukoak... Emm... Ez, ez hainbeste.

**Zure emazteak atsegin al du saskibaloia?**

Ez, ez.

**Gorroto dio?**

Ez, ez du gorrotatzen, baina beste gauza batzuk gustokoagoak ditu. Gainera, ez dago Gasteizen nirekin, eta ez du kirol torturarik jasan behar.

**Lehenbiziz Italiatik at entrenatzen duzu: etxetik alde egin behar izatea gogorra izan da zuretzat?**

Profesionala naiz. Orain barruan dudan guztia eskaini behar diot Baskoniari. Gasteizko eskaintza ona zenez, en nuen zalantzarik izan.

**Zure emaztea ez al da zurekin Gasteizen bizitzera etorriko?**

Aurten ez. Hilabetean behin egoten gara elkarrekin.


geu gasteiz

irolak

ELKARRIZKETA

SERGIO SCARIOLO:

*"Gasteizko eskaintza nahiko ona zenez ez nuen inolako zalantzarik izan"*

ERREPORTAIA

GARUN PARALISIDUNAK

**borondateak mendiak mugitzen dituenean**



KOLABORAZIOA

ANDER FDZ. DE L.

"azken 5 urteotan Baskonian hemengo jokalari bakarra egon izatea lotsagarria da erabat"









Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## PARRANDARIK EZ

**Spaghettiak ala angulak?**

Spaghettiak, oraindik spaghettiak. Baina hemen oso ondo jaten da, arraina, batez ere. Euskal sukaldaritza atsegina dut.

**Gasteizko jatetxeren bat?**

Ummm (Asko pentsatu ondoren)... Asko eta onak daude, ez dut bat esango, baina. Gutxitan irtetzen naiz, hori bai, noizean behin Paco Galdos txirrindulari ohiak duen jatetxera joaten naiz, ederto prestatzen baititu nire herriko jakiak

**Paco Galdos lehendik ezagutzen al zenuen?**

Bai! Italiako Giroa irabaztear egon zen.

**Gasteizko gauaren berririk al duzu?**

Ezer gutxi. Dena den, ez du zer ikusirik Italiakoarekin. Italiarrok lasaiagoak gara; han goiz oheratu eta esnatzen dira, egunsentiarekin bakan batzuk, hemen ez bezala, etxeratzen dira... Ezberdinak gara.

**Erroma ala Paris?**

Beharbada, Paris.

**Liburu bat ala lagun on bat?**

Bi gauzak. Liburu on bat topatzea errazagoa da, dena den.

**Hogerleko asko gastatzen dituzu gominan?**

Astean 100 bat.

**Edertasunak ate batzuk irekitzen ditu?**

geu gasteiz

> "Paco Galdosek ederto prestatzen ditu nire herriko jakiak"

geu gasteiz

Hainbat lanetan bai, beste batzuetan, berriz, ireki baino ixten ditu.

**Oporretan...**

Itsasoa izugarri gustatzen zait, Sardinia irla kasu.

**Araba Pabilioia ganadu azoka izan zen, jakinaren gainean zeuden?**

Bai, banekien. Gainera, Gasteizkoa ez da kasu bakarra, Frantzian ere gertatzen baita. Zaharra da, baina bertan norgehiagoka garrantzitsuak irabazi dira, eta horrek izaera berezia ematen dio.

**Gasteiztarroi hiri ederra dugula entzutea gustatzen zaigu, baina zer falta zaio gureari?**

Hegazkinez beteriko aireportu bat.

## ZEIN DA ZELEDON?

**Gasteizera etorri baino lehen, euskaldunon berri zenuen?**

Egia esan, oso euskaldun gutxi ezagutzen nituen. Hemen, leku guztientan bezalaxe, denetarik dago, txarrak eta onak. Etiketak ez zaizkit gustatzen.

**Zer deritzozu monarkiari? Lady Di, ezkontzak... Erregezaleak ulertzen dituzu?**

Ni ez naiz erregezalea, baina herrietako ohiturak ulertu beharra dago. Errepublika batean jaio nintzen, eta zaila da niretzat maitasun hori ulertzea, baina...

**Jarraian botako dizkizugun hitzak entzutean, zer datorki-**



Profesionala eta langilea izateaz gain, diploatkoa da oso, Sergio Scariolo, Baskoniako entrenatzaile italiarra

XIXILU
AMARIKA PLAZA 2
23 00 68 GASTEIZ
JATETXEA




Argazki - Estudio
Erramun
Heraclio Fournier, 23
Tnoa: 13 71 02
01006
Libertad, 5
Tnoa: 26 19 91
01004

K2
KIROLDEGIA
CENTRO DEPORTIVO
C/COMANDANTE IZARDUY, 18 TFNO: 945/23 05 36
01006 VITORIA-GASTEIZ

Muskulazio-gela eta gela kardeobaskularra (500 m²) • 4 squash-pista arauzko • Rokodromoa (20m x 11 m) • Saski baloi indoor pista • 800 m²-ko aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrunbainua, sauna erraldoia • Aerobik-gela (300 m²) • Mantenimendu-gimnasiarako gela • Tatami gela (250 m²) • Bilar frantsesean eta amerikarrean iharduteko mahaiak • Ping-pong mahaiak

**ETA LASTER: Padel pista • 25 metroko igerileku estaligirotua • Balio anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoa,...**



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

**zu gogora? Emakumezkoak?**

Erdia.

**Italia?**

Aberria.

**Euskal Herria?**

Herria.

**Kerejeta?**

Konpetentea.

**Zeledon?**

Zein?

**Ez zinen Gasteizko jaietan izan?**

Azkenengo egunean bai, ez dakit zein den, ordea.

**Zeledon? (Zein zen azaldu ostean, berriz galdetu genion)**

Telebistan ikusi nituen irudiak, baina ez nekien zein zen... Hitz bat? Jai izpiritua. Orain italiarroi falta zaiguna, ez dakigu ondo pasatzen, eta ikasi beharra daukagu.

**Ismael Diaz de Mendibil**

geu gasteiz

"Leku guztietan bezalaxe denetarik dago hemen. Ez ditut etiketak gustoko"

geu gasteiz


**JANTZI ETA OPARIAK**

Kutxilleria, 27
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ





KOLABORAZIOA

gure taldea

# gure koloreak

**Aurten ACBn 25 urte betetzen dituen talde honen bilakerak euskal saskibaloizale denek gozotasun ospatu izan genuen Europako lehen finalarekin, duela 3 urte, eman zituen bere aurreneko emaitza esanguratsuak. Bertatik, karismaz beteriko jokalari ugari pasa izan da, besteak beste, Essie Hollis, Ramon Rivas, Pablo Laso, Velimir Perasovic...**

*Profesionalizazioak dena bere egin duen egun hauetan eta, sekula baino gehiago, metal hotza agintari aseezina denean, jokalariek kamiseta sentitzen ez dutelaz, ezta babes ematen dien hiriaren izena ere jabetzen gara. Hain justu, horixe denean faltan botatzen duguna, gure lurran jaiotako jokalariak, gure lurrean hazitakoak, zer gertatzen den, hemen saskibaloia nola ulertzen eta sentitzen dugun jakin dezatenak. Azken bost urteotan talde honetan bertoko, gure lurreko jokalari bakarra egon izatea, lotsagarri baino lotsagarriagoa da. Denok badakigu, bai, oso gauza zaila dela, baina zertxo bait gehiago egin daitekeela uste dut nik. Hau futbola ez dela badakigu, baina hemendik jokalariak kanpora irten behar izan dira jokatzeko, eta hori, bertokoak hartu baino kanpoko jokalariak - merkeagoak - ekartzea hobe dela uste dutenen kulpa da, soilik.*

*Beste alde batetik zalegoa dago, hainbat eta hainbat lekuetan taldearen atzean ibilia, ez noski gertakizun handiak heldu direnean gurdira igo direnak, baizik eta duela hamar urte baino atzeragotik Baskoniaren irrintzia han eta hemenka zabaldu dutenak, uneoro taldeak garaipenak lortzen dituenean baina baita porrotak jasotzean ere animatzen duena. Taldeak, Klubak, holako zalego bat izateak norainoko garrantzia duen ez du jakin nahi, eta erabat gutxietsitua gaitu. Eta berriz esango dut, ez naiz Andra Mari Zuriaren Plaza betetzen duen zalego oportunistari buruz ari (eta ez deritzot gaizki), baina bene-benetan talde hau barnean sentitzen dugunok badakigu guzti hori gezurrezkoa, irreala dela.*

**Ander Fdez. de L.**

BASKONIAZALEA ETA BAZKIDEA



*Iturbe anaiak, Estatu Batuetako NBA Ligatik urrats bakar batera, Araban goi mailako saskibaloilariak sor daitezkeelaren froga argia da. Halere, hariak beren eskuetan dituztenek seaska landu baino kanpotik jokalariak ekartzea hobe dela uste izaten segitzen dute.*

*Baina... orduak eta orduak eman nitzake talde aldrebes honen inguruan buruari bueltak ematen, baina umoretsu amitu nahi dut, duela aste batzuk gertatutako anekdota bat kondatzen. Ez dakit jada ahatua duzuten baina aurten taldeak frogatu zuen Jens Uwe-Gordon jokalari alemaniar-komunitarioak bere aurreneko prentsaurrekoa eman zuenean, berau amaitzerakoan, denon artean ondo geratzeko "¡Viva España!" bat bota zuen; norbaitek esango ziona gizajoari gero holakoak hemen ez direla ondoegi jasotzen.*

*Agur bero bat talde mingarri honen jarraitzaile guztioi...*

*JO TA KE!*


Bacalao Giraldo

Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldua • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin
ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"



Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran • GASTEIZ




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

campeonatos europeos de boccia • european boccia championships • europako boccia txapelketak • vitoria-gasteiz 1997

garun paralisisdunen artean 'boccia' da kirolk hedatuena, gaixorik minduenek ere praktikatu bait dezakete

# KIROLA BIZITZEKO ARRAZOI BAKARRENETAKOA BIHURTZEN DENEAN



**MAKINATXO BAT GAUZA sineskaitz ikusten jarduna banintzela uste nuen. Beste nonbait esana dut, bizitzeko egokitu zaigun tokian bizita, jadanik 'ezusteko faktorea' delakoaren presentzia zerotik oso behera mugatua geratzen dela. Urrian, baina, ileak tente jarri zitzaizkidan aspaldiko partez, 'Europa' Gizarte Etxean burutu ziren garun paralisidunentzako Europako Boccia Txapelketetara hurbildu nintzenean.**

URRIAREN 7A eta 12a bitartean burutu dira aurten Europako Boccia Txapelketak, esan bezala, Gasteizko 'Europa' Gizarte Etxeko polikiroldegian. Betidanik izan ditut oso gustokoak, norberekeria kutsu batekin agian, gutxituen edo ezinduen kirol emanaldiak ikustea.

Arretaz segitu nituen Bartzelonako Joku Paraolinpikoak eta era berean Atlantakoak. Bestelakoetan saiatu izan naiz baita, nahiz eta komunikabideok erabat ahaztuak ditugun. Zailtasunak gainditzeko jende honek duen erraztasunak, mugak botatzeko duten grinak, sekulako eragin terapeutikoa -horrexegatik aipatzen nizuen berekoikeriaren kontu hori- izan ohi du neregan.

Baina, goi mailako edozein kirolekin gertatu bezala, zuzenekoa ikusi arte, ezinezkoa da benetako izaeraz gozatzea. Horrexegatik, aukera ezinhobetzat nuen Boccia 'europeo' hauxe, aurrenekoz gertu gertutik gutxituen eliteko lehiaketa bat ezagutzeko. Horrela, monoa jantzita, hortaz idatzi beharko bainuen, 'Europaruntz' abiatu nintzen.

ELEKTRIZITATEA
GURIA
muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna
Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR

UDABERRIA
elkartea
•Euskaltegi Homologatua
-Helduentzat
-Ume eta gaztetxoentzat
•Musika eskola
•Dantza
Uruguay, 9 •Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

vitrales
MIKEL DELIKA
BEIRATE ESTUDIOA
Txikita kalea, 1
Tfno. 14 64 10
GASTEIZ

OLARIZU MENDI
HERRIKO TABERNA
JOSE URUÑUELA KALEAN

GASTEIZKO
IRUBIDE
HERRIKO TABERNA
RAMIRO DE MAEZTU KALEAN
HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA
"SAN FRANCISCO JAVIER" KANTOIAN



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Yolanda Martin donostiarrak bi domina lortu zituen BC3 kategorian, zilarrezkoa banakakoetan eta brontzeskoa binakakoetan, bere herkide Amaia Martinez lagun zuela.

**PETANKA EGOKITUA**

Grezia klasikoan sorturiko kirola da boccia, denboraren poderioz desagertzear zegoela, 70. hamarkadan Europako iparraldeko herriek berreskuratu zutena, hain zuzen, garun paralisidunentzako egokituaz.

Ordutik, izugarrizko *boom*a eman da eta jada gaixo hauen artean gehien praktikatzen den kirola da, batez ere, gaixo minduenek ere praktikatu baitezakete. Gehiegi luzatu gabe, sinez mereziko lukeeen arren, bi hitzetan hauxe da boccia.

Bi jokalarien artean jokatzen da. Bakoitzak bost bola ditu, batek gorriak eta besteak urdinak, eta aurrenekoz botatzen den bola txuri batetik gertuago geratzean datza jokua. Petanka jokua ezagutzen duzuenei ulergarriagoa gertatuko zaizue, petanka egokitutzat hartua izan baita, boccia askotan.

Garun paralisidunak direnez, noski, hainbat sailkapen egiten dira, gaixotasunaren min edo afekzioaren arabera. Horrela, beti ere gurpilezko aulkian, BC1 kategorian, jokalariak pilotak besoz edo hankaz jaurtikitzeko gai dira eta BC2 mailan, baita eskuekin ere. BC3 kategoriak jasotzen du gaixorik minduenak eta, hau da, horrexegatik hain zuzen, ikusgarriena. Gaixo hauei ezinezkoa zaie ez eskuekin, ez hankekin ezta besoekin ere, pilotak botatzea, eta hodi baten laguntza beharrezkoa dute, argazkietan ageri bezala.

**KONZENTRATZEKO ARAZOAK**

Txapelketan bertan murgildu aurretik Espainiar taldeko entrenatzailearekin solasalditxo bat izan nuen, beste gauza anitz jakin nahiean ere, batez ere Yolanda Martin eta Amaia Martinez donostiarren aukerak ezagutu asmoz. *Floren*ek, halaxe deitzen baitute denek Florencio Diaz, horrela erantzun zidan: "Urduri dira. Etxean jokatzen dute eta horrek urduritasuna sortzen die. Partiduak hasi aurretik aukeraturiko taktikak jarraitzeko arazoak dituzte, nahiko presionatuak baitaude".

Une batez nire buruak aluzinatu zuen. Zelan liteke 'tipo' honek esaten zidana egia izatea? Nola liteke burmuia hain mindua duen pertsona batek - eskua ere ezin mugitzeraino - konzentratzeko arazoak izatea, etxean jokatzeagatik presioa izatea?



Txapelketaz gozatzeko aukera izan nuenean ulertu nuen guztia, hain justu besoetako ileak tente nituela somatu nuenean. Ez dakit non dagoen sekretua! Ez dakit zerrek ordezkatzen duen gaixo hauetan, paralisirik ez dugunok ezinbestekoa dugun burmuina! Ideia izpirik ere ez dut!

Gauza bakarra dut argi, Europa Gizarte Etxean egun hoietan ikusi nituena ez zirela garun paralisidun batzuk, beraiek praktikatu dezaketen kirol bakarrean eliteko kirolariak baizik, saskibaloian Michael Jordan bezalakoak dauden bezala, boccian Antonio Cid eta beste batzuk badirelako, teknika, taktika eta jokaldi harrigarri, sinesgaitzak burutzeko gai dena. Espektakularra, gozagarria, miragarria, terapeutikoa, ederra, daztagarria, zerutiarra... gomendagarria!

Asier Pz. de Karkamo


ESKOA!
arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintoreria, 23 • Tel. 28 18 38 01008 GASTEIZ


PAPERDENDA
den-dena
birziklatua
Zuhaizti
OPARIAK • INPRENTA LANAK • KARTOIZKO ALTZAIRUGINTZA
Kutxilleria, 6 behea • 01001 GASTEIZ • Tnoa. 28 60 15

TXVSTA
TABERNA
ESPEZIALITATEA: BAT ERE EZ
Mateo Moraza kalea
GASTEIZ


EL BAR Kutxi
eguneko menua

axular
LIBURUDENDA
Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# aurrak MOSTRONGOTXOAK



# musikaz blai

FOLK, ROCK and rolla, ska, funky, heavy, pop, trashmetal, makaiaoa, musika klasikoa, euskal musika,... soinu uhinetan zehar hainbat musika mota aurki dezakegu. Baina ba al dakigu zer musika mota gustatzen zaien gure mostrongotxoei? Nahiago izango al dute Back Street Boys, Gozategi baino? Musika Klasikoa gustuko izango al dute? Galdera honetan gehiago murgiltzeko Geu Gasteizkook Odon Apraiz ikastolara gerturatu gara eta hurrengo lerrootan hurbilduko dizuegu zer musika mota gustoko duten 5. mailako neska-mutilek. Adi, beraz, guraso guztiak!



DOCTOR DESEO gustatzen zait, 'rock and roll'a asko gustatzen zaidalako. Musika klasikoa ere asko asko gustatzen zait, eta oboea jotzen dut. Hertzainak taldea ere gustoko dut.

ANDREA

ROCK AND ROLLA gustatzen zait oso musika polita delako. Martxa asko dauka eta oso dibertigarria da. Abeslariek eta taldekideek arropa ikusgarria daramate eta entzuten dudanean oso ondo pasatzen dut.

URTZI SUEIRO

NIRI gustatzen zaidan taldea Viceversa da. Ahots oso politak dituzte eta erritmoa oso ona da. Adibidez 'Sirenatxoa'-ren musika beraiek konposatu zuten. Oso abesti originala eta polita da. Diska hori hainbeste aldiz entzuteagatik hondatu egin zait.

TAMARA R.

NIK makina, ACDC eta Kiss gustoko ditut batez ere bere janskerengatik.

MIKO
izozkiak

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK
berreskuraturiko egurraz eginak
eta OSAGARRIAK
artisau lanak
lorategi eta barrualdeko-proiektuak egiten ditugu
Herreria 38, behea tfnoa.: 25 25 03 01013 Gasteiz
AMAIUR ALTZARIAK

GASTEIZ
DIBUtec
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01
• Material escolar y de oficina
• PAPER BIRZIKLATUA
• FotoKopiak
kolorez eta Zuri-Beltzean
Arte ederretarako... behar duzun guztia
PAPERTEGI TEKNIKOA

KLASEAK
matematika
fisika
kimika
biologia
geologia
euskara
irakaskuntza ertaina eta unibertsitatea
☎ 26 03 54



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

ACDCko kontzertuak ikusgarriak dira, bertan gitarjolea *stripteas*-a egiten du. Bestalde oso gustokoa dut ere nola margotzen diren Kisseko taldekideak.

EKAITZ RAMOS

NIRI Gozategi gustatzen zait oso martxosoak direlako. Su ta gar eta makaiao musika ere gustokoa dut. Txalaparta ere, jotzen baitut.

AINTZANE

NIRETZAT Oskorri da munduko talderik onena. Oso martxosoak dira eta gustatuko litzaidake haiek dituzten ahotsak izatea.

DANI BLANCO

NIRI Back Street Boys gustatzen zait oso onak daudelako. Nickek eta Brianek oso ondo abesten dute. Etxean jartzen ditut beti eta beraiekin batera hasten naiz dantza egiten.

NEREA RUESGA



GOZATEGI. Maixa eta Itziar, Celtas Cortos eta Alaitz eta Maider gustokoak ditut. Euskal Musikan Alaitz eta Maider dira nire gustokoenak, trikitixa eta panderoa jotzen soinu politak ateratzen dituztelako.

ENEKO I. DE H.

BACK STREET Boys onenak dira. Gainera oso guapoak dira eta denok batera dantza egiten dute. Bere musika asko gustatzen zait eta gainera ahots onak dituzte.

ALBA PEREZ

GOZATEGI, SKA-P, Maixa eta Itziar... gustazen zaizkit. Euskalduna naizenez erritmo hauek atsegin ditut.

XABIER P.L.

NIRI talde lasaiak gustatzen zaizkit, Ella baila sola-ren modukoak. Oso abesti politak dituzte. Foru Plazan ikusi nuen bere kontzertua eta asko gustatu zitzaidan. Majuak dira eta ondo abesten dute.

MAIDER BUJEDO

NIK jarraian aiputuko talde guzti hauek gustoko ditut Enrique Iglesias, Back Street Boys, Spice Girls, Ricky Martin, No Doubt, musika klasikoa eta baita musika borroka ere.

SILVIA FORCEN



Karlos Fdz de Betoño

## kanGEURoak




### GOIZEZ

| | |
|---|---|
| Nekane | 26 91 53 |
| Eduardo | 14 21 99 |
| Leire | 27 32 81 |
| Lorena | 27 10 13 |
| Ainara | 24 04 42 |
| Ana | 26 65 95 |
| Eriete | 29 96 50 |

### ARRATSALDEZ

| | |
|---|---|
| Oihana | 25 30 35 |
| Aintzane | 27 09 64 |
| Iratxe | 24 51 81 |
| Ainara | 23 38 28 |
| Lorena | 27 10 13 |
| Patrizia | 27 78 19 |
| Leire | 23 12 23 |
| Maider | 24 90 62 |

### GAUEZ

| | |
|---|---|
| Esther | 27 84 57 |
| Idoia | 24 47 79 |
| Lorena | 27 10 13 |
| Montse | 26 78 12 |
| Ainara | 23 38 28 |
| Txaro | 28 08 85 |
| Maider | 24 90 62 |
| Arrate | 25 64 01 |
| Patricia | 13 93 37 |

### ASTEBURUAN

| | |
|---|---|
| Olatz | 25 61 20 |
| Montse | 26 78 12 |
| Arrate | 25 64 01 |
| Patricia | 13 93 37 |
| Leire | 23 12 23 |
| Jose Angel | 27 62 14 |
| Saida | 26 58 05 |
| Idoia | 24 47 79 |
| Maider | 24 90 62 |
| Belen | 13 65 10 |
| Monika | 13 86 21 |
| Itziar | 13 86 21 |
| Maria Jesus | 13 54 35 |
| Estitxu | 25 99 60 |

AMILAMIA
*arropa eta osagarriak*
PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

HEGOALDE
euskaltegia.
ZURE EGOITZA BERRIA
Jose Lejarreta 9 behea
tfnoa 28 41 96
01003 GASTEIZ
matrikula zaitez!



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# ETSAI PUBLIKOA 1




gidoia eta marrazkiak: Iñigo Sarasola

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# GASTEIZKO VDALA



# Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

| SAILA | ZERBITZUA | HELBIDEA | TELEF. |
|---|---|---|---|
| **UDALETXEA** | PRENTSA KABINETEA | Espainia plaza, z/g | 16 13 37 |
| | ZERBITZU OROKORRAK | Espainia plaza, z/g | 16 13 08 |
| | GIZARTEGINTZA (ARGIBIDEAK) | Espainia plaza, z/g | 16 13 44 |
| | GAZTEEN ARGIBIDE BULEGOA | Espainia plaza, z/g | 16 13 30 |
| | FUNTZIO PUBLIKOA | Espainia plaza, z/g | 16 11 41 |
| | IDAZKARITZA | Espainia plaza, z/g | 16 13 20 |
| | ARGIBIDEAK ETA ERREGISTROA | Espainia plaza, z/g | 16 11 88 |
| | ERROLDA | Espainia plaza, z/g | 16 11 06 |
| **BULEGO TEKNIKOAK** | BORONDATEZKO DIRU-BILKETA | Dato, 11 | 16 16 68 |
| | ZERGEN GESTIOA | Dato, 11 | 16 11 33 |
| | INGURUGIROA | Dato, 11 | 16 11 20 |
| **OSASUN ETA KONTSUMO SAILA** (DEMSAC) | KONTSUMITZAILEEN INFORMAZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB) | | 16 12 40 |
| **UDAL ARTXIBOA** | ARTXIBOA-ARGIBIDEAK | | 16 14 99 |
| **ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA** | ARGIBIDEAK | | 16 12 88 |
| **VILLA SUSO JAUREGIA** | ARGIBIDEAK | | 16 12 70 |
| **HEZKUNTZA SAILA (IME)** | ARGIBIDEAK | Fray Zacarias | 16 12 16 |
| **EKONOMI SUSTAPENA** | | Fray Zacarias | 16 12 11<br>16 13 48 |
| **GIZARTE ETXEAK** | JUDIMENDI | Urriak 12 kalea, z/g | 16 17 40 |
| | LANDATXO | Santa Maria kalea, 4 | 16 16 82 |
| | IPARRALDE | Zuberoa plaza, z/g | 16 17 60 |
| | ARIZNABARRA | ARIZNABARRA, 19 | 13 36 91 |
| **EUROPA GIZARTE-ETXEA** | ARGIBIDEAK (KULTURA) | | 16 12 31 |
| | BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA | | 16 12 61 |
| **KONTZIENTZI ERAGOZPENERAKO BULEGOA** | | | 16 36 91 |

AYUNTAMIENTO DE VITORIA GASTEIZKO UDALA

ZERBITZV ELEBIDVNAK

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# gure kultura zaintzen

## ARABAKO MUSEOAK

**Arte Ederretako Museoa**
Fray Francisco pasealekua 8
01007 Gasteiz
Tel. 945-181918

**"Fournier" Karta Museoa**
Bendaña Jauregia, Cuchillería 54
01001 Gasteiz
Tel. 945-181920

**Arkeologi Museoa**
Correría 116
01001 Gasteiz
Tel. 945-181922

**Arma Museoa**
Fray Francisco pasealekua 3
01007 Gasteiz
Tel. 945-181925

**Natur Zientzietako Museoa**
Jesusen Zerbitzarien kalea 24
01001 Gasteiz
Tel. 945-181924

**La Hoyako Museoa**
01300 Biasteri
Tel. 945-181918

**Arabako Heraldika Museoa**
Mendozako Dorrea
01191 Mendoza

**Ekintzak**
Ikustaldi gidatuak
Ekintza didaktikoak

**Arabako Museoen ordutegia**
Asteartetik ostiralera: 10etatik 14etara eta 16etatik 18.30etara
Larunbatetan: 10etatik 14etara
Igande eta jaiegunetan: 11etatik 14etara
Astelehenetan itxita

## ERAKUSTEKA ARETOAK

**Amarica Aretoa**
*Arabako artistak*
*Azaroaren 22tik*
Amarica Plaza 4
01005 Gasteiz
Tel. 945-181977

**Kultura Etxea**
*Jesús Apellániz eta Sáenz de Tejada*
*Azaroaren 5tik*
La Florida ibilbidea z/g
01005 Gasteiz
Tel. 945-181944

**Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegia**
*La cámara oculta. Pilar Albajar eta Antonio Altarriba. Argazkiak*
*Abenduaren 5ra*
Miguel Unamuno 1
01006 Gasteiz
Tel. 945-181926

## HITZA KULTUR ETXEAN

**Azaroko egitaraua**

**Osteguna, 13**. Arratsaldeko 8etan
*Zazpi eskale. Unai Iturriaga*

**Ostirala, 21**. Arratsaldeko 4etan
*Musika eta erritmoa Garirekin*
*Bideo Emanaldia*

**Osteguna, 27**. Arratsaldeko 8etan
*Liburulakiak. Antzerki saioa*
*Trokolo taldea*

**Abenduko egitaraua**

**Asteartea, 2**. Arratsaldeko 8etan
*Broad Peak 97. Diaporama*
*Iñurrategi Anaiak*

**Ostirala, 5**. Arratsaldeko 4etan
*Hitzarekin jolasean*
*Jesús Mari Irazu, Aitor Mendiluze*

*Liburutegia*
*Kontsulta Aretoa*
*Bideoteka*
*Mailegu Saila*

La Florida ibilbidea z/g
Tel. 945-181944

Diputación Foral de Alava
Departamento de Cultura y Euskera

Arabako Foru Aldundia
Kultura eta Euskara Saila

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa